

# ORDUTEGI-ALDAKETA ERMUA-DEBA LINEAREN ETA DEBA-ONDARROA ANEZKAREN GAUEKO ZERBITZUAN

## HURRENGO ASTEBURUAN ZEHAR, SAN KRISTOBALEKO UDALBUSEN GELDIALDIA KENDUKO DA

Euskotren Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoak datorren uztailaren 13tik aurrera aldatuko du DB44G Ermua-Deba linearen eta Deba-Ondarroa anezkaren larunbatetako gaueko Lurraldebus zerbitzuaren ordutegia.

Datorren larunbatetik aurrera, ordutegia honako hau izango da:

- Ermua-Deba zerbitzu erregularra** (geldialdiak Ermuan, Eibarren, Elgoibarren, Altzolan, Mendaron eta Deban):
  - Ermua-Deba: irteerak Ermuatik 23:05ean (Mallabiatik dator eta Mendaron du helmuga), 0:40an, 2:40an, 4:40an eta 5:40an.
  - Deba-Ermua: irteerak Debatik 23:20an, 0:30ean, 2:30ean, 4:30ean eta 6:30ean.
- Deba-Ondarroa anezka** (geldialdiak Deban, Mutrikun eta Ondarroan):
  - Deba-Ondarroa: irteerak Debatik 1:30ean, 3:30ean, 5:30ean eta 6:30ean.
  - Ondarroa-Deba: irteerak Ondarroatik 22:50ean, 0:00etan, 2:00etan, 4:00etan eta 6:00etan.

## HURRENGO ASTEBURUAN ZEHAR, SAN KRISTOBALEKO UDALBUSEN GELDIALDIA KENDUKO DA

Eibarko San Kristobal kaleko jaiak direla eta, uztailaren 12ko (ostirala) 15:00etatik hilaren 15era (astelehena) arte, UDALBUS udal-zerbitzuko autobusen ibilaldia aldatuko da.

Aldaketa horrek berekin ekartzen du San Kristobal kaleko geldialdia kentzea.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek 944 333 333 telefonora deitu, [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunea kontsultatu eta, Twitterren, @euskeuskotrenEJGV kontuarekin harremanetan jar daitezke.

Bidalketa-eguna: 2019ko uztailaren 11

*Euskadi, auzolana, bien común*

